

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARGOMAIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2019ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea**

Argomaizen, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2019ko lehenengo seihilekoko) ordaindu behar dutenen errolda egin delarik, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunetz jendaurrean egongo da errolda hori, interesa dutenek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Argomaizko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko azaroaren 26an hasi eta abenduaren 26an bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Helbideratutako ordainagiriak 2019ko abenduaren 26an kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Argomaizko Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Argomaiz, 2019ko urriaren 24a

*Lehendakaria*  
**ROSA MARÍA SOLETO GARCÍA**